

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

AHOZKO AZTERKETA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dituzue.
- 1. ariketan, azterketari bakoitza lauzpabost minutuz arituko da aldez aurretik prestatutako gai baten inguruan.
- 2. ariketan, bi (edo hiru) azterketari arituko zarete. Ikuspegi kontrajarriak defendatuko dituzue.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, eskatu epaimahaiari zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

MINTZAMEN-PROBA Probaren ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez
<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Ez da ebaluatuko. ■ Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du. (Nor/ NANA/nongoa/lana). <p>1. ariketa: Bakarka.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Aldez aurretik prestatutako gai baten azalpena egin eta gaiari buruzko iritzia aurkeztu eta defendatu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundakotik aztertzaileek galderaren bat egiterik ere bada. ■ Euskarria: azterketari bakoitzak bere lan esparruari begirako bi aipamen izango ditu aukeran iritzi-azalpena garatzeko. ■ Denbora: 4 min. azalpena egiteko eta 1 min. aztertzailearen galderei erantzuteko. ■ Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. ■ 15 puntu. <p>2. ariketa: Azterketarien arteko jarduna.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Gai bera emango zaie azterketariei; bi ikuspuntu, kontrajarriak. Bakoitzak bere ikuspuntua defendatu beharko du. Hasieran banaka, atariko laburra egingo dute. Gero, elkarrizketari ekingo diote, eta eztabaidari. Epaimahaiak parte har dezake elkarrizketa bideratzeko edota jarduna orekatzeko. ■ Euskarria: 2 fitxa. Gai edo egoera bat eta argazki edo eskema bidez, gai horri buruzko ideia kontrajarriak. ■ Denbora: 1 min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. elkarrizketan aritzeko. ■ 15 puntu. 	<p>35-40 min.</p> <p>(15 min. gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

4. HE

MINTZAMENA

- **1. ariketa: Garatu gaia eta eman zure iritzia.**
 - 15 min. dituzu fitxa begiratzeko (aipamenak edota aipamen-galderak). Gero, 4 min. izango dituzu azalpena egiteko.
 - Amaieran, beste azterketariari entzundakotik, aztertzaileek galderaren bat egiterik ere bada.
- Ebaluatzerakoan hauxe hartuko da kontuan:
 - gaiarekiko lotura
 - gramatika-zuzentasuna
 - aberastasuna
 - erregistroaren formaltasuna eta egokitasuna
 - gaiaren arloko lexikoaren erabilera
 - jarioa
 - diskurtsoa antolatzeke abilezia

1.aipamena

Komenta ezazu honako baieztapen hau:

“Inolako zalantzarik gabe, ez dago mugarik gabeko askatasun publikorik. Gure sistema juridikoan oinarrizko edo funtsezko askatasun guztiek ezarriak dituzte beren mugak, esplizituki Konstituzioan bertan, eta inplizituki edo zeharka oinarrizko beste eskubideen bitartez eta Konstituzioak babesten dituen beste instituzio eta baloreak zaindu behar diren ondorioz, Konstituzio Auzitegiak dioen moduan”.

2.aipamena

Botere judizialaren independentzia.

- Zein da zure ustez gaur egungo egoera? Zenbaterainokoa da botere exekutiboarekiko mendekotasuna?
- Botere judizialaren organo gorenak alderdi politikoen esku egoteak ba al du eraginik?
- Zer aldatuko zenuke zuk karrera judizialean edo goi mailako karguak izendatzeko sisteman justiziaren independentzia bermatzeko?

Oh.: Fitxa hau erakusgarri bat besterik ez da, eta mintzamen fitxak zer nolakoak diren erakustea beste helbururik ez du; hots, fitxa honetan jaso diren aipamenak administrazioaren alor jakin batekoak izan arren --zuzenbidea--, azterketariei banatuko zaizkien fitxak beren lan-esparrua eta lanpostua zein den kontuan hartuta eratu dira.

4. HE

(A fitxa)

MINTZAMENA

- **2. ariketa:** Gaiaren inguruko eztabaida
 - Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizuegu gaiaren inguruko zenbait argazki eta ideia sorta bat.
 - Helburua: iritzia trukatzea, argudiatzea eta defendatzea.
 - Denbora: 1min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. eztabaidan aritzeko.
- Ebaluatzerakoan hauxe hartuko da kontuan:
 - gaiarekiko lotura
 - gramatika-zuzentasuna
 - aberastasuna
 - erregistroaren formaltasuna eta egokitasuna
 - gaiaren arloko lexikoaren erabilera
 - jarioa
 - diskurtsoa antolatzeko abilezia

OSASUN SISTEMA, ERDIPURDIKOA



- Sindikatu gehienek Osakidetzaren egoera ez dela ona deritzote, **baliabide pertsonal eta ekonomikoak ez direla nahiko** agerian dagoelako. Ikusi besterik ez dugu zer-nolako **itxaron zerrendak** eta zer-nolako jendetza egoten den osasun zerbitzu guztietan, ospitaleetan, larrialdi zerbitzuetan, osasun zentroetan...
- **Osasun publiko baten alde egin behar da;** izan ere, bizi itxaropena gero eta handiagoa da, eta hori hala den heinean, **etorkizunean osasun zerbitzuen beharrizan handiagoa izango dugu.** Sistema gainbehera doa, eta **erreforma sakon bat egiten ez bada, zaharkituta geratuko da.**
- Medikuek eta erizainek gaixotasunak ez ezik, gaixoak ere tratatu eta artatu behar dituzte, eta sarritan ahaztu egiten zaie. Hori dela eta, **Osasun Sailak tratu gizatiarragoak sustatu beharko lituzke, guztiz kalitatekoa den zerbitzua bermatu ahal izateko.**
- **Krisi ekonomikoa eta gehiegizko gastu publikoa dela eta, osasun zerbitzuan alde zuzenetik ordaintzeko neurriak hartzekotan daude;** besteak beste, medikuaren kontsultara joateko edota medikuen errezetak hartzeko ordaindu egin beharko da. Horretarako aintzat hartuko dituzte bezero bakoitzaren diru-sarrerak, horren arabera ehunekoren bat ordain dezaten.


4. HE

(B fitxa)

MINTZAMENA

- **2. ariketa:** Gaiaren inguruko eztabaida
 - Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizuegu gaiaren inguruko zenbait argazki eta ideia sorta bat.
 - Helburua: iritzia trukatzea, argudiatzea eta eztabaidatzea.
 - Denbora: 1min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. elkarrizketa egiteko.
- Ebaluatzerakoan hauxe hartuko da kontuan:
 - gaiarekiko lotura
 - gramatika-zuzentasuna
 - aberastasuna
 - erregistroaren formaltasuna eta egokitasuna
 - gaiaren arloko lexikoaren erabilera
 - jariora
 - diskurtsoa antolatzeko abilezia

OSASUN SISTEMA, PRIMERAKOA



- EAEko egungo osasun sistemak **doako zerbitzua herritar guztiei eskaintzen die**, inor baztertu gabe, eta bezeroak artatzeko **punta-puntako teknika eta teknologiaz baliatzen da**. Hala, bermatu egiten du herritar orok osasun zerbitzurako duen eskubidea.
- **Teknologia berrien erabilera dela eta, osasun-sistema arindu egingo da**; izan ere, etxetik bertatik zenbait gauza egiteko aukera izango dugu, besteak beste, medikuaren errezetak eskatzeko edota txandak eskatzeko. Horrez gain, norberaren historiala ere informatizatuta egongo da, edozein mementotan kontsultatzeko moduan.
- **Osakidetzarentzat garrantzitsuena bezeroa da**, eta horregatik hainbat zerbitzu eskaintzen du gaixoak ahalik eta erosoan senti daitezen, esaterako **etxeko ospitalizazioa**. Zerbitzu horrek ospitalean dagoen ohe faltaren arazoa neurri batean saihestez gain, gaixoaren bizitza ere erraztu egiten du, modu horretan gaixoak ez baitauka ospitalera joan beharrik.
- Pazienteen asebetetze maila orokorra dela eta, **larrialdietako zerbitzuko erabiltzaileen %94,50ek adierazi du oso edo nahiko pozik dagoela**. Profesionalek emandako tratuari dagokionez, inkestutako laginaren **%99,70ek oso ontzat edo ontzat jo du jasotako tratua**.